

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 15a / 484. zenbakia

HERRIALDEA EZAGUTZEKO ERAKUSKETA

PALESTINA

IREKIKO DUTE EGUENEAN KULTURA ETXEAN

INGURUMENA: ZUHAITZ EGUNA OSPATUKO DA BIHAR/6 • XAKEA: MARTIN ARRIARAN EUSKAL LIGARA/10



Zu ere ikastolako partaide!

Aranzadi ikastolako matrikula epea
otsailaren 18tik martxoaren 1era



Otsailaren 16an, larunbata, arratsaldeko 4:30etik 7:00etara,
San Martin plazan eta Poligonoan:

- Jolasak eta kirolak arratsalde osoan jolastokian
- Txirritx eta Ttanttorekin ordenagailuz jolasean
- Ipuin kontaketak arratsaldeko 5:00etan eta 6:00etan
- Euskal dantzak eta aerobic saioa arratsaldeko 6:30ean
- Ordu erdiro bisita gidatuak

Zatoz ikastolara!



ARANZADI IKASTOLA



HERRI ONURAKO
IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA



ATREBENTZIAEZPADA/ Garizuman egitten dozu bijilixarik?



EDURNE JIMÉNEZ
32 urte



JOSE MARTIN UNAMUNO
70 urte



MARIA LUISA IGLESIAS
65 urte



ALICIA URRUTIA
40 urte



LUIS ESNAOLA
81 urte



MIREN IÑARRA
32 urte

Nik ez dot egitten bijilixarik, etxian ez dogu behin be egin. Amaren etxian egitten giñuan, baiña aspaldi. Eta guk ez dogu jarraitu, ohitura hori galdu egin dogu.

Batzuetan bai eta beste batzuetan ez; akordatzan bagara. Gurasuengandik datorren ohitura da. Lehen oin baiño errespeto haundixagua zeguan, eta formal egitten zan.

Ez daukagu ohitturirik. Nik neuk egin izan dot inoiz, baiña normalian ez. Gurasuek egitten zeben, baiña beste garai batzuk zien, lehen zorrotzago eruatzen zien holako gauzak.

Ez daukagu hori egitteko ohitturirik. Lehen egitten giñuan, baiña ohitura hori galduz jun zan, eta gaur egun, ez dogu egitten. Ez gara siñestunak eta umiak be ez dittugu hola hezi.

Egitten dogu, baiña gutxi. Lehen bai, beti egitten giñuan, andriagaittik, baiña oraiñ gutxitan, akordatzan garenian bakarrik. Ohitura bat da, eta denporiakin aldatuz jun da.

Noizian behin, akordatzan garenian egitten dogu bijilixia. Akordatzan naiz, lehenago, urtiak diela, lehenago etxian zorrotzago egitten giñuala, baiña guk ez dogu egitten.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ARGI GUTXIEGI Beheko Estaziñoko zubietako bat konpondu eta argia jartzeko lanetan ari dira. Txalogarria da, batez ere jende ugari erabiltzen duelako bide hori. Baina behin horrekin hasita, ez litzateke gaizki egongo Ozaeta aldera joateko zubiarekin jarraitzea. Han ere ez dago argirik eta hura ere jende ugari erabiltzen du. Hala ere, badirudi ez dagoela konpontzeko asmorik./M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KULTURA /12

ZAHARRAK BERRI /14

Edukiontzia zaborrarentzat

Otsailaren 25etik martxoaren 1era artean zaborrarentzat edukiontzia jarriko dituzte.

Palestina ezagutu

Palestina ezagutzeko erakusketa irekiko dute eguean kultura etxean, martxoaren 3ra arte.

Eguneko Zentroa

Mendekotasun fisikoa edo psikikoa duten hamar lagun ari dira Eguneko Zentroan.

ASTEKO DATUA

119

ZABORRA UZTEKO EDUKIONTZI KOPURUA

Laster hasi beharko gara etxeko zaborra edukiontzietara botatzan. Otsailaren 25ean hasiko dira edukiontzia jartzan eta martxoaren 2rako guztiak egongo dira jarrita. 119, hain zuzen ere.

BESTEKE SANA

“Espainiako Auzitegi Konstituzionaleko presidente Manuel Jiménez de Parga aditzera eman du kontzientzia nazional espainiarra ahul dagoela, eta sinbolo batzuk indartzeko beharra agertu du: ereserkia edo bandera kasu, horiek baliagarri dira eta herritarren eta magistratuak samintasunez oroitzen dituen sentimendu aberkoiak batzeko. Arrazoi du Manuel Jiménez de Parga. Franco hil zenetik hona, Espainia, nazio bat baino areago, despioporra da. Eskoletako patioetan ez da banderarik altxatzen eta ez da etorkizunean Aberria gidatuko duten mutilen arima hunkitzeko ereserkerik intonatzen. Jiménez de Parga beltza zuriaren gaitetik ipini du.

XABIER MOÑUX
MEDIOA/00-00-00

BERAIEK DINOE/ Maite Aristegi



*Porto Alegre,
alaitasunaren
iturri*

Brasilgo inauteri ospetsuak ere igaro berriak. Baina Porto Alegren beste inauteri giro bat bizi izan da astebez: bazter guztietatik joandako milaka lagunak, bakea eta justizia sozialaren alde lan egiteko bil-duta, amasa berri eta itxaropentsua barreiatu dute munduan, beste era bateko mundu bat egin dezakegula aldarrikatuz.

Neoliberalismoa, dirudunen beharrak herrien beharren gaitetik jarriz: aberastasuna esku gutxitan kontzentratu, miseria areagotu eta ludi guztia deuseztatzearen errudun. Sistema honen ondorio zuzenak milaka lagun eguneroko drama: gosea, gaixotasunak, gerraren ondorioz etxeak utzi beharra, nekazaritza lurrak galtzea, langabezia, zerbitzu publikoen desagertzea, ingurugiroaren txikitzea eta komunitateko elkartasuna galtzea. Eta horren guztiaren ordez, Porto Alegren bizitzaren duintasuna errebidikatu da: bakea eta eskubide

sozialak, diskriminazioa, pobretasuna eta dominazioa alde batera uzteko. Ura, lurra, basoak, haziak, kulturak eta herrien nortasuna humanitate osoaren ondasun direla, oraingo eta ondorengo belaunaldiendako. Herri orok duela janari sanoak eta genetikoki

“Porto Alegren bizitzaren duintasuna aldarrikatu da; bakea eta giza eskubidea, dominazioa alde batera uzteko”

eraldatu gabeak jateko eskubidea. Janari subiranotasuna oinarritzko giza eskubidea dela eta horretarako nekazari eremuko erreforma eta nekazariak lurra izateko eskubidea ezinbestekoak direla. Janariak, osasuna, hezkuntza, bizitza... ezin direla patentatu.

Eta proposamen horiek aurrera eramateko, aliantzak indartu behar ditugula, ekin-tzak bateratu ahalik eta ozenez egin ahal izateko. Datozen hilabeteetako hainbat mobiliziotan denok ahots bat izatea erabaki zen. Eta Euskal Herri-tik joan zen ordezkartza zabala ikusita ea bide horretatik, etxetik bertatik konpontzen hasita mundua zertxobait hobetzera iristen garen.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA

Edu Mendibil

ERREDAKZIOA

Monika Belastegi,

Aintzane Irizar

MAKETAZIOA

Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA

Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK

Luis Mari Agirre

Maitane Arizabaleta

Juan Martin Elexpuru

Miguel Angel

Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA

55-50/91

ISSN

1130-6599

TIRADA

5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zehatzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

ZERBITZUAK/ Guztira 119 edukiontzi jarriko dituzte, eta zaborra 20:00ak ostean ateratzea gomendatzen dute usaina egon ez dadin

Otsailaren 25a eta martxoaren 1a artean ipiniko dituzte zabor edukiontziak

MONIKA BELASTEGI

Hilaren 25ean jarriko da abian zaborrendako edukiontzi sistema berria. Hilaren 25a eta martxoaren 1a bitartean 119 edukiontzi jarriko dituzte herriko kaleetan. Etxeko postontzian edukiontziak ondo erabiltzeko oinarrizko arauak jaso ditugu.

Etxeko zaborra ateratzeko sistema laster aldatuko dute. Hilaren 25etik martxoaren 1a bitartean jarriko dituzte edukiontzi berriak, eta zaborra lurrean utzi beharrean bertara botatzera ohitu beharko dugu.

Ohituraz aldatzeko eguna hurbiltzen ari dela-eta, etxeko postontzian edukiontziak erabiltzeko hainbat oinarrizko arau ere jaso ditugu dagoeneko. Besteak beste, honako hauek: ez utzi inoiz ere zaborra solte, ondo itxitako poltsetan baizik; poltsak, beti, edukiontzien barrura bota, eta ez utzi zaborrik 20:00ak baino lehen, usain txarrik ez sortzeko, eta likidoen jarria ekiditen saiatu.

Esan bezala, Bergaran 119 edukiontzi jarriko dituzte. Horieta-tik 45 ontzi 3.200 litroko edukierakoak eta gainerako 74 ontziak 2.400 litrokoak. Edukiera txiki-gokoak ere badaude, baina Bergararako aipositutako neurrikoak direla uste izan dute Udaleko arduradunek; haatik, zerbitzua martxan jartzen denean ikusi beharko da herriko tokiren baten txikiagoa behar ote den edo ez.

Ildo beretik, edukiontziak non kokatuko diren ere zehaztuta dago; hala ere, kokapen hori behin-behinekoa izango da, Udaleko iturriren esanetan. Izan ere, gerta daiteke edukiontzia jarri eta arrazoari bate-



ARTIBOIA

Irudikoaren moduko ehun eta hemeretzi edukiontzi jarriko dituzte herrian.

Zaborra biltzeko ehun eta hemeretzi edukiontzi jarriko dituzte herriko kaleetan

gatik edo besteagatik kendu behar izatea. Edo jarri ez eta edukiontzia jartzeko beharra ikustea.

Kokapen horri dagokionez, ia kasu gehienetan, orain arte

Komeni da zaborra 20:00ak baino lehen ez botatzea edukiontzira, gutxiago usaintzeko

zaborra uzteko erabiltzen genituen B/Z gunek mantenduko dituzte, nahiz eta metro gutxi batzuetako gorabeherak izan daitezkeen.

523 mila euro inguruko (87 milioi pezeta) aurrekontua izango du urteko zerbitzu berriak

87 MILIOI PEZETA URTEKO

Zaborrendako edukiontzien zerbitzua aurrera eramateko, FCC (Fomento de Construcciones y Contratas) enpresa azpikon-

tratatu du Debagoieneko Mankomunitateak, eta, horrela, enpresa hori arduratuko da Debagoieneko herrietan jarriko diren edukiontziak hustu eta garbi edukitzeaz. Kontratazioa, bestalde, zortzi urterako egin dute.

Bergarako Udalaren kasuan, 523.000 euro inguruko (87 milioi pezeta) aurrekontua izango du zerbitzuak, urteko. Hori horrela izanik, zaborrendako edukiontzi zerbitzu berria orain arteko sistema baino 32 milioi pezeta garestiagoa aterako zaio Bergarako Udalari.

Zuhaitz landatzea eta azoka bihar, bertako espezien alde

MONIKA BELASTEGI

Zuhaitz egunaren helburu nagusia da espezie autoktonoak bultzatzea. Horretarako, ekimen bikoitza antolatu du Ingurumen batzordeak bihar: azoka San Martin plazan eta zuhaitz landatzea.

Espezie autoktonoak sustatzeko politikaren barruan, bihar, otsailak 16, Zuhaitz eguna antolatu du Udaleko Ingurumen batzordeak, azken urteetan egin izan duen moduan. Hala ere, azken urteetan espezie autoktonoak sutatze-

ko ekimen horrek aste osoa iraun izan du, hau da, Zuhaitz astea izan da. Eta aurten, egun bakar baten batuko dira zuhaitzaren gaineko ekitaldiak.

Hori horrela, batzordeak bergarar guztiak eta, bereziki, ikastetxe guztiak gonbidatzen ditu zapatuan egin behar diren ekinztzetan parte hartzera.

ERAKUSKETA ETA ZUHAITZ LANDATZE SINBOLIKOA

Espezie autoktonoak sustatzeko ahalegin horretan, azoka eta zuhaitz landatzea antolatu dituzte bihar goizerako.

09:30etik aurrera, eta goiz osoan, baso lanerako tresneriaren erakusketa eta salmenta, eta zuhaitzen ezaugarrien inguruko erakusketa izango dira San Martin plazan.

Zuhaitz landatze sinbolikoari dagokionez, San Martzialgo inguruetan egingo dute, eta Udalak dei berezia egiten die neska-mutikoei zuhaitz landatze horretan parte hartzeko. Dena dela, interesa duten guztiak daude gonbidatuta landaketara, eta elkartzeko tokia Santa Marina parroikia osteko azoka izango da, 10:00etan, hain zuzen ere.



ARTIBOIA

San Martzial inguruetan landatuko dituzte zuhaitzak hurreratzen diren guztiak.

ELKARRIZKETA

MIREIA ALBERDI/NUTRIZIONISTA

“Gero eta ume lodi gehiago dago; urtez urte kopurua gora doa, gainera”

MONIKA BELASTEGI

Datorren astelehenean Jardun elkarteak antolatutako nutrizio ikastaroa hasiko da. Mireia Alberdi nutrizionistak emango ditu eskolak. Hiru gai länduko ditu ikastaroan, eta aurrerapen txiki bat egin digu.

Hiru gai aukeratu dituzu ikastarorako.

Saiatu naiz ikastaro praktikoa egiten, eta horretarako gaur egungo gaiak jorratzen: dieta bat nola banatu astean zehar, higieena eta loditasuna. Hiru gai horiek aukeratu ditut, batetik, arazoak izaten ditugulako askotan, ez daki-gulako jateko zer prestatu. Hori horrela, jarraibide txiki batzuk emango ditut, astebeterako dieta orekatu bat prestatzeko.

Higie aldetik honako zalan-tzak argituko ditugu: ona egongo da hozkailuan bost egunetan daukadan hau? Edota izoztu eta desioztekoe zer urrats jaraitu behar diren.

Azkenik loditasuna landuko dugu. Gure gizartean izugarri egin du gora loditasunak. Nire asmoa da loditasuna zergatik agertzen den azaltzea, eta zein gauza aldatu diren gero eta lodi gehiago egoteko.

Zein gauza aldatu dira?

Ohiturak. Lehen jendeak ari-keta fisiko asko egiten zuen. Orduan, asko jan arren, kaloriak erre egiten zituen. Gaur, aldiz, lan estatikoagoak ditugu. Gainera, janari mota ere asko aldatu da. Aurretik egindako gero eta janari gehiago jaten dugu, eta koipe asko du. Sedentarismoa igo da, eta jateko moduak aldatu dira.

Jatea da loditzeko arrazoia?

Ez beti, baina normalean da energia gehiago hartzen dugulako kontsumitzen duguna baino. Bestalde, ikastarora gurasoak etortzen baldin badira, asko gustatuko litzaidake umeengan gertatzen den loditasunaz hitz egitea. Hor bai igo dela asko loditasuna.



MONIKA BELASTEGI

“Ikastaro praktikoa egin nahi dut, eta erabilgarriak izango diren gauzak azalduko ditut”

Urtetik urtera, gainera, igotzen doa, eta hori bai dela faktore garrantzitsua, zeren eta ume bat lodia baldin bada, seguruenik bizitza guztian lodia izango da. Oso garrantzitsua da umeari jaten erakustea. Lodi egotea gauza askotarako da txarra: hiperten-

“Gure gizartean izugarri egin du gora loditasunak, eta urtetik urtera gorago doa”

tsoak bagara, loditasuna arrisku faktore bat izango da, lokomozio-aparaturako txarra da...

Ez diot mundu guztiak argal egon behar duenik, gaurko eredu jarraitu behar denik, baina, pisu baten barruan sartzea erraza da, eta onurak ekartzen ditu.

LABUR

Traste zaharrak ateratzeko egutegia eta ordutegia gogorarazten ditu Udalak

Udalak gogorarazi nahi du, traste zaharrak hilaren lehenengo eta hirugarren eguaztenetan jasotzen dituztela (jaieguna izanez gero, hurrengo eguaztenera atzeratuko litzateke). Ordutegiari dagokionez, 08:00ak baino lehenago edo aurreko gauean atera behar ko dira trasteok.

Auzoei eta erdigunetik kanpo dauden kaleei dagokienez, aurreko eguneko 13:00ak baino lehenago jakinarazi behar da 943 779106 telefonoan, kamioia bertatik pasatzeko. Auzoak eta erdigunetik kanpo dauden kaleak honako hauek dira: Angiozar, Azkarruntz, Gabiria, Urteaga, Amillagako industrialdea, San Juan, Ubera eta Osintxu.

Drogen menpekotasunen prebentziorako hirugarren filma otsailaren 19an izango da

Drogen menpekotasunen prebentziorako udal zerbitzuak gogorarazi nahi die DBHko 4. mailako eta DBHoko 1. mailako ikasleen gurasoei, datorren martitzenean, otsailak 19, 18:30ean *Mi dulce* filma emango dutela Novedades aretoan.

Film hori 2001-02 ikasturteko *Irudi Biziak* izeneko drogen menpekotasunen prebentziorako egitarauaren hirugarren saioa da. Filma gaztelaniaz izango da, eta honako gai hauez hausnartzen lagunduko die gurasoei: pertsonen arteko komunikazioa eta arazoak era baikor batean konpontzeko trebetasunak, eta erabakiak nola hartu, irizpide arrazional eta balore etikoetan oinarrituta.

**Hainbat kale asfaltatuko ditu Udalak**

Hainbat kale asfaltatzeko baldintzak lehiaketara atera ditu Udalak. Kale horiek honakoak dira: Ola auzoko autobus geltokia, Algodonera bezala ezagutzen dugun tunelera heltzeko oinezkoen bidea, Irizar jauregiko lorategiko pasabideak eta Ramon Maria Lili kaleko barruko gunea. Lan horien gastua 38.500 euro ingurukoa da (sei milio eta erdi pezeta inguru).

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

**Aurpegiaren Yoga ikastaroa:
giharrak landuz aurpegia gaztetu**

BI TALDE:
Ostiraletan 20:00etatik 21:00etara.
Otsailaren 22tik martxoaren 22ra
Larunbatetan 11:00etatik 12:00etara.
Otsailaren 23tik martxoaren 23ra


Samadhi
Yoga

YOGOTERAPIA ETA ERLAXAZIOA
Kruz Gallastegi, 2-behea.
Tel. 636 235 753 / 943 76 11 38



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Aratuste jai oso parte-hartzaile eta alaiak gozatu ditugu eta giroa ere lagun izan da

MONIKA BELASTEGI

Aratuste alaiak izan ditugu aurten goak; eguraldiak ere asko lagun du, iaz ez bezala. Egubakoitzean hasi eta martitzenera arte pailazo, erizain, sorgin... denetarik izan dugu herrian. Bin Laden gutxi, baina, pronostiko guztien aurka.

Lehenengoak mozorrotzen, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletako neska-mutikoak izan genituen. Egubakoitz arratsaldean atera ziren kalera, eta aurak izan ziren Aratusteetan sartzen ari ginen aurreneko erakusgarri. Zapatuan, berriz, ez haurrak bakarrik, nagusiagoak ere mozorrotzeko txanda iritsi zen. Eta gauza bera martitzenean. Denetarik izan genuen: batek, San Martin Agirre ikastetxeko neska-mutikoak, eta besteak, hainbat herritar. Aratuste jaiak amaitzeko, sardina erre zuten plazan ohi bezala.



Egubakoitzean Lantzeko Aratusteen jarraitzaile direla erakutsi zuten Aranzadikoek.



Aratusteen aldeko diru-bilketa egin zuten Gurutze Gorriko erizainek.



Sugusak bezain biguin eta gozoak ote dira ba hauek?

*Jaiak amaitzeko,
sardina erre zuten
ohi bezala,
martitzenean, San
Martin plazan*



Mariaren Lagundiko izartxoek argitu zuten kalea egubakoitzean.



Jau! San Martin ikastetxeko indioak euren lurraldean.



Udaberria aurreratu ei zaigu. Guk bost topatu genituen martitzenean.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

iRUDI

Erloju denda
Bitxitegia

Ibargarai, 2
BERGARA
943 76 51 65

Bergarako Udala

Bergarako Udala lehiaketa-oposizio bidez Jakinarazle bat eta Ongizate sailerako Prebentziorako Teknikari bat kontratatzea doa.

Izangaien baldintzak:

- Jakinarazlea: Eskola ziertagiriaren jabe izatea, 2. Hizkuntza eskakizuna eta frogaldian A gida baimena izatea...
- Prebentziorako teknikaria: Erdi mailako titulua jabe izatea, 4. hizkuntza eskakizuna...

Instantziak aurkezteko epea:

- Jakinarazlea: 2002ko martxoaren 4ko eguerdiko 13:00ak arte.
- Prebentziorako teknikaria: 2002ko otsailaren 25eko eguerdiko 13:00ak arte.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2002ko otsailaren 13an





ARATUSTEETAN TORRADAK ETA MOZORROAK

Astebururo elkartzen dira gaztetxo hauek guztiak Jardunen. Eta oraingo astean, ekitaldi bereziak izan dituzte. Izan ere, Kartzela Zaharrera ere iritsi dira Aratusteak. Batetik, zapatu arratsaldean, desfilea egin zuten; baina ez nolanhiko desfilea, ez horixe. Mozorro desfilea egin zuten; ibiltokian pare bat paseo egin, eta nork bere mozorroa erakutsi zuen. Domeka arratsaldean, bestalde, torradak egiten jardun zuten gaztetxoek. Eta, horrela, Aratusteetako jaki tipikoak zelan egiten diren ikasteko aukera paregabea izan zuten gaztetxo hauek guztiak. Esnea, ogia eta gainerako osagaiak hartu, eta sukaldera!



BERGARAN
BULEGO BERRIA

KOROSTI
INMOBILIARIA

BERGARA LEGAZPI
Ibargarai 3. Santikutz 8.
943 76 97 97 943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA

DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

943 76 48 08.
Zubieta 26
BERGARA

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

ile
apaindegia
edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55

POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

BERGARARRAK MUNDUAN

IDOIA LARREA

32 URTE / BANKUKO LANGILEA / RIJSWIJK (HOLANDA)

“Holandako jendearendako futbola da gauzarik garrantzitsuena”

AINZANE IRIZAR

Zortzi urte daramatza Idoia Larreak Holandan bizi izaten. Aurretik, baina, Danimarkan ere egondakoa da, Erasmus programarekin. Azken ikasturtea Danimarkan egin ostean, Bergarara bueltatu eta lan bila hasi zen. “Lan kontua nahiko gaizki zegoen, eta sorpresa galanta hartu nuen Holandarako beka lortu nuen”, azaldu digu Idoiak. Gauzak horrela, Hagara (La Haya) joan zen. “Nire asmoa zen Holandan urtebete lanean egin eta Bergarara bueltatzea”, diosku Idoiak. Baina urtebete pasatu ondoren, Bergaran ez ei zegoen lanerako aukera askorik, eta Hagan gelditzea erabaki zuen.

“Hemen software enpresa baten lanean hasi nintzen, eta, azkenean, hemen bizi izaten geratzea erabaki nuen. Izan ere, norbait ezagutu nuen eta...”, gogoratzen du Idoiak. Gaur egun, ING taldean egiten du lan, banku eta aseguru etxeen konpainia baten.

Bestalde, holandarak oso alaiak direla ere kontatu digu. Edozein aitzakia ona ei da haiendako jaialdi bat antolatzeko. Baina neguan eta udan ezberdi-

nak ei dira holandarrak; izan ere, udako egunak oso luzeak dira, gaueko hamaikak arte ez ei du iluntzen han; horregatik, lanetik irten eta hondartza aldera joaten dira holandarrak arratsaldea pasatzera. Hori, jakina, oso atsegin du Idoiak. Holandarren kultura


“Koadrilako giroa eta kaleko bizitasunaren hutsunea nabari dut hemen”

ezagutzeko aukera ere izan du, eta horren gainean galde-tuta, zera erantzun digu: “Hemen garrantzitsuena futbola da”.

Oso gustura dago Idoia Holandan, eta lagun asko ei ditu han; baina hainbat gauzaren hutsunea ere nabari du: “Familia eta lagunak, batez ere, faltan sumatzen ditut, baita koadrila giroa eta kaleko bizitasuna ere”, diosku. Holandan jendea ez ei da etxetik irten paseatzera edo bueltatxo bat egitera.



MINGAINARITIRAKA



Txomin Arietaleaniz

EROSKIKO BANATZAILLIA

Eroskiko erosketak etxetik etxe banatzen lan egiten dau Txominek. Gustora dabil lan horretan, baiña nahixago leuke tailler baten zortzi orduko lana.

Noiz hasi ziñan Eroskiko banatzaile? Orain dala urtebete hasi nitzan; nere ezagun bat zebillen banatzaile, eta harek esan zoztan ia hastia nahi neban; orduantxe karneta atera berri nitzan.

Egunian zenbat etxetara eramaten ditzuzu erosketak?

Ez dakit; batzuetan hogeitxetara, hurrengo hogeita hamarrera... Egubakoitzetan egiten dittugu banaketa gehixen: hirurogei bat etxetara juten gara. **Herriko kale eta atari danak ondo ezagutuko ditzuzu, ezta?**

Bai, horixe.

Egunian zenbat kilometro egiten ditzuzu furgonetiakin?

Horixe bai ez dakidala; nora jun biharra daukadan arabera.

Gustora zabilz lan horretan?

Bueno, nahixago izango neuke beste lanen baten jardutia.

Zertan nahiko ziñuke lan egin?

Taillerren baten-edo. Egunian zortzi orduan lan egin, eta zapatuak libre.

Poltsikokorik erabiltzen dozu?

Bai, oin dala gutxi erosi dot; lanerako oso ondo etortzen jat.

Telebisiñua, irratixa ala egunkarixa?

Telebisiñua ikustia gustatzen jat; egunkarixa be egunero irakurtzen dot.

Telebistako programarik gustokuena? Dokumentalak eta pelikulak.

Pelikula bat?

Piraten pelikulak gustatzen jat; abenturazkuak jeneralian.

Beti egin nahi izan dozun zeozer, eta oraindik egin ez dozuna?

Egiptora jutia hango piramidiak ikustera.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Jose Ignacio Familiar

ETIOPIA / 1997ko abuztua

Lagun batek proposatuta egin nuen Etiopiarako bidaia. Antolatutako bidaia izan zen, eta guztira hamabi bat lagun joan ginen. Bidaiak hiru atal izan zituen, zeharo ezberdinak hirurak ere. Lehendabizi Harar hirira joan ginen. Duela mende bat gehitu zitzaion hiri hori Etiopiari, eta somaliar etniak bizi dira hiri horretan. Etiopiako kulturarekin zerikusirik ez duen hiri da Harar. Horrela, Somaliako kultura ezagutzeko aukera izan genuen.

Handik, Etiopiaren erdialdea eta iparraldea ikustera abiatu ginen. Harrigarria da zelako paraje berdeak dauden han. Erdialdea 2.000 metrora dago, eta altura horretan euri asko egiten du. Etiopia iparraldeko kultura oso berezia da; izan ere, kristauak dira, baina hirugarren mendea ezkerro dira kristauak. Gero, musulmanak etorri zirenean, isolatuta laga zituzten, ez zituzten konkistatu. Horrela, euren kulturari eutsi diote.

Bidaiaren hirugarren partean, hegoaldera joan ginen. Hegoaldeko muturra sabana bat da, baina ia ez dago animaliarik. Pena da.

Ingurune hartako interesgarriena izan zen han bizi diren etniak ezagutzea. Harrigarria da zelan bizi diren ikustea: isolatuta, modernitatez ez zaie iritsi... Bueno, modernitate bakarria dauzkaten armak dira; besterik ez zitzaien iritsiko, baina tribuetako gizonezko guztiek dituzte armak.

Gu egon ginen garaian, abuztuan, festa batzuk egiten dituzte hango tribuetan, gazteak euren artean ezagut daitezten. Bada, kostatu zitzaigun heltzea, baina lortu genuen euren festan egotea. Hegoaldeko ibilbide hura izan zen bidaiako interesgarriena, dokumentaletan ikusi ohi duguna aurrez aurre ikusteko aukera eman zigun-eta.

AINZANE IRIZAR



Etiopiako tribu bateko emakume bat.



“Harrigarria da zelako berdea den Etiopiako iparraldea”

“Heldu zaien modernitate bakarria dauzkaten armak dira”

EDEL TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Ganbara

TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogitartekoak Etxeko ogia

ENKARGUAK HARTZEN DIRA

Barrenkalea 16. Tel.: 943 76 20 62



Senior taldeak aukera handiak ditu mailaz igotzeko. Azken hiru partiduetan onena eman beharko dute Edu Orgazen mutilek.

ESKUBALOIA

Domekan galdu arren, senior taldeak lehenengo jarraitzen du

Edu Orgazen taldeak gol bategatik galdu zuen Labegaraietan Egialderen aurka (21-22)

EDU MENDIBIL

Bergara KEko senior eskubaloi taldeak 21-22 galdu zuen domekan Labegaraietan, Legazpiko Egialderen aurka. Liga amaitzeko hiru partidu besterik ez dira geratzen, eta mahoneroak sailkapeneko lehen postuan dira, Egialde eta Arrate taldeen aurretik.

Bergarak bi punturen aldea ateratzen die legazpiarrei, eta Arrate, berriz, hirugarren da sailkapenean, 4 puntura. Hala ere, Egialdek eta Arratek bergararrek baino partidu bat eta bi gutxiago jokatu dituzte, hurrenez hurren. Gauzak horrela, liga amaiera emozioz beterik izango da. Bergarak Andoaingo Leitzaran taldeari bisita egingo dio astebukeraren.

Domekan Bergarak aukera paregabea galdu zuen legazpiarrekiko aldea handitzeko. Partidu garrantzitsua zen, eta etxekoek huts egin zuten. Edu Orgaz Bergarako entrenatzailearen arabera, "defentsan ondo ibili ginen, baina jaurtiketa errazak huts egin genituen erasoko jokaldietan. Normalean, batez beste, 30 gol

inguru egiten ditugu, eta domekan 21 besterik ez genuen egin. Gehiegi barkatuz gero, partidua aurrera ateratzea zaila izaten da, eta hori gertatu zitzaigun legazpiarren aurka".

Honako jokalarik hauek kan txaratu ziren domeka goizean jokaturako partiduan: Ekain Sotil, Joseba Larrañaga (gol bat), Garikoitz Arregi (9 gol), Eugenio Cabo (2), Ruben Sanchez (5), Aitor Sanchez, Ibai Goenaga (gol bat), Gorka Asteburuaga, Mikel Agirrezabal, Iban Orgaz (gol bat), Iker

Retolaza (3 gol) eta Lander Juaristi. Ibai Goenaga hegaleko jokalarik partidua hasi eta handik gutxira kantxa utzi behar izan zuen, orkatilean izandako lesioa zela eta.

PENALTIA HUTS EGIN

Partiduko azken minutuetan Bergarak penalti jaurtiketa bat huts egin zuen, eta partidua amaitzeaz zegoela, azken segundoetan, legazpiarrek garaipenaren gola egin zuten. Kolpe latza jaso zuten Bergarako jokalariek domekan.

Ligako azken txanpa

Liga bukatu bitartean borroka handia izango da Egialde, Arrate eta Bergara taldeen artean. Sailkapeneko lehen biek lortuko dute mailaz igotzea. Oraingoan, Bergarak aukera handiak ditu, baina ezin du hutsik egin geratzen diren hiru jardunaldietan. Astebukeraren Andoaingo jokaturako du Leitzaranen aurka, hurrengo astean Urnieta hartuko du etxean, eta azken jardunaldian Arrasateri bisita egingo dio. Azken jardunaldiko Egialde eta Arrateren arteko neurketa ere erabakigarria izango da. Edu Orgazen hitzetan, "zaila izan arren, hiru partiduak irabaztea da gure asmoa. Txapeldunak izateko ahaleginak egingo ditugu".

Martin Arriaranek xakeko Euskal Ligan jokatu du

E.M.

Martin Arriaran xake jokalarik Euskal Ligara igoera lortu du Arrasateko San Andres taldearekin. Arriaranek hiru urte daramatza arrasatearrek jokatzeko. Aurten txapelketa bikaina burutu dute.

Joan zen denboraldian ere igoera lortzeko gertu egon zen San Andres taldea. Aurten hamalau talde aritu dira Gipuzkoako ligan, eta arrasatearrek lortu dute garaipena, alde nabariarekin gainera. Martin Arriaranekin batera, Ander Ginart, Txema Hernando, Josu Tornay, Luis Angel Ortega eta Isidro Ruizek osatu dute taldea. Joan zen zapatuan izan zuten ligako azken jardunaldia.

Martin Arriaranek zortzi partida jokatu ditu txapelketan zehar: lau irabazi ditu, eta gainerako laurak berdinketaren amaitu dira. Hurrengo denboraldian San Andresekoak Euskal

Herriko talde onenekin batera izango dira lehian. Martinen arabera, "iaz Urnieta izan zen mailaz igo zena, eta aurten ondo ibili dira. Ikusiko dugu zer moduan moldatzen garen. Hasierako asmoa mailari eustea izango da".

ESPERIENTZIA HANDIKO JOKALARIA

Martinek 37 urte dauzka eta 14 urterekin hasi zen xakean jokatzeko. 1990eko hamarkadaren hasieran Euskadiko banakako txapelketan hartu zuen parte bi aldiz, eta horietako batean Espainiako txapelketarako sailkatzea lortu zuen. Berak esaten duenez, "xakea betidanik gustatu zait, baina asko entrenatu behar da, eta gero eta zailagoa da banakako txapelketak jokatzeko irteera, ekialdetik etorritako jokalarien konpetentziagatik batez ere".

Ordenagailu programa batekin entrenatzen da, eta xakea, zerbaitetan, oso nekagarria dela dio: "batek ondo esaten zuen moduan, boxeo intelektuala da xakea".



Martin Arriaran Arrasateko San Andres xake taldeko jokalaria.

Bergara-Hernani, zapatu arratsaldean Agorrosinen

E.M.

Azken jardunaldian Ordizian bana berdindu eta gero, Bergarako preferente mailako futbol taldeak Hernaniren aurka jokatu du zapatuan Agorrosinen. Partidua 16:30ean hasiko da.

Bergarak luzapeneko minutuetan lortu zuen berdinketa Ordizian. Etxekoek 89. minutuan lortu zuten markagailuan aurreratzea penalti bati esker, eta 93. minutuan Oskar Maiztegik banakoa egin zuen. Ondorioz, mahoneroak sailkapeneko 11. tokian dau-

de, 36 punturekin. Hernani, berriz, seigarren postuan dago, 41 punturekin. Gauzak horrela, Bergarak ezinbestekoa du biler garaipena lortzea, goialdeko taldeekiko aldea ez handitzeko. Aurreko denboraldian Hernani eta Bergara 3. mailan aritu ziren.

BESTE BI PARTIDU ASTEBUKERAN

Futbolarekin jarraituz, beste bi partidu izango dira asteburuan. Zapatuan, ohorezko mailako kadeteek Arrasateren aurka jokatu dute Ipintzan, 18:15ean. Lehen mailako gazte taldeak Jilababal hartuko du domekan, 11:00etan.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

Mongatxurak-Bar Ganbara	10-2
Komando Piperrak-Agirrebeña	3-0
Bar Ugarte-Eri	4-2
Kanpazar-Bar Ganbara	3-4

B MULTZOA

Bar Canalejas-THT	7-6
Amoskibar-Aterpe	5-3
Txipiron-Irubide	9-3
Bar Bedarreta-Vacalouras	17-2

C MULTZOA

Ortzi-Dedo Pafarru	7-11
Patxaran-Artusamak	0-4
Errotagain-Timofonika	10-3
Argandolas-Pagomendi	4-2

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

16:00: Bayer-Errotagain. Amilotx
17:00: Bar Ganbara-Amilotx. Bar Ugarte
18:00: Mongatxurak-Bar Ugarte. Etengabe
19:00: Artekale-Etengabe. Pagomendi
20:00: Pagomendi-Artusamak. Artekale

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Txipiron-Etengabe. Amoskibar
10:30: Artekale-Amoskibar. Txipiron
11:30: Bar Canalejas-Aterpe. THT
12:30: Bar Bedarreta-THT. Bar Canalejas
16:00: Bicip. Igartua-Kanpazar. Timofonika
17:00: Patxaran-Timofonika. Irubide
18:00: Irubide-Vacalouras. Patxaran

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. A Ze Flaxa	40	17
2. Mongatxurak	35	15
3. Bar Ugarte	34	15
4. Eri	25	16
5. Kanpazar	20	16
6. Komando Piperrak	17	16
7. Bar Ganbara	13	16
8. Biciprecisión Igartua	7	16
9. Amilotx	4	15
10. Agirrebeña	0	0
11. Torrekua	0	0

B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	43	15
2. Bar Canalejas	32	15
3. Bar Aterpe	24	15
4. Amoskibar	21	15
5. THT	20	15
6. Irubide	19	15
7. Vacalouras	19	15
8. Txipiron	17	15
9. Artekale pizzeria	12	14
10. Etengabe	-3	14

C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	39	13
2. Artusamak	28	13
3. Dedo Pafarru	25	14
4. Argandolas	25	14
5. Bayer	24	13
6. Pagomendi	18	13
7. Ortzi	10	14
8. Patxaran	6	13
9. Timofonika Team	3	13
10. Bildurbarek	0	0

GAINBEGIRADA

PILOTA

Jokin Oregi eta Jon Larrañaga infantilak, Gipuzkoako Txapelketako final-laurdenetan

Jokin Oregi eta Jon Larrañaga infantil mailako pilotariek Gipuzkoako Txapelketako final-laurdenetako partidua izango dute Tolosako bikotearen aurka gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 20:00etan. Itzulerako partidua datorren astean izango da, Tolosan. Bergararren eta tolosarren arteko norgehiagokaren aurretik gaztetxoen partidua izango dira Udal Pilotalekuan, 19:00etan hasita. Bestalde, Debarroko Txapelketaren barruan Bergarak eta Eskoriatzak indarrak neuruko dituzte martitzenean, Udal Pilotalekuan, 19:00etan.

ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Areto futboleko Kopa txapelketako zozketa egingo da martitzenean kultura etxean

Martitzenean, otsailaren 19an, Labegaraietako areto futboleko kopa txapelketako zozketa egingo da kultura etxean, 18:00etan. Guztira, 28 talde izango dira lehian aurtengo ekitaldian. Oraingo aste bukaeran, berriz, liga jardunaldia izango da.

Bestalde, antolaketa batzordeak A multzoko Agirrebeña eta Torrekua taldeak kanporatu ditu, azken partidura ez aurkezteagatik.

TENISA ETA ESKU PILOTA

Kirol Zerbitzuak antolatutako tenis eta esku pilota txapelketak hasiko dira aste bukaeran

Zapatuan, otsailaren 16an, tenis eta esku pilota txapelketak jarriko dira abian. Labegaraietako kiroldegian jokatuko dira tenis partiduak aste bukaeran, eta Debagoieneko 20 bat jokalaririk izango dira lehian apirilaren 28ra arte. Bestalde, esku pilota txapelketa bikoteka jokatu da lau t'erdia barruan, Udal Pilotalekuan eta Angiozarko Arbiaska pilotalekuan. Bi txapelketa horiek Debagoieneko Kirol Zirkuirako puntuagarriak izango dira.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Bergara-Hernani
Preferente maila. Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Bergara-Arrasate
Ohorezko mail. kadeteak. Zapatua. 18:15. Ipintza.
Bergara-Ildiazabal
Lehen mailako gazteak. Domeka. 11:00. Ipintza

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Bergara-Tolosa (Infantilak)
Egubakoitza, hilak 15, 20:00. Udal Pilotalekua.
Aurretik, 19:00etatik aurrera, eskolarren arteko partiduak izango dira.
Debarroko Txapelketa
Bergara-Eskoriatza
Kadete, gazte eta senior mailako partiduak jokatu dira. Martitzena, hilak 19, 19:00. Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ordizia 1 Bergara 1 (Preferente maila)
Bergara 3 Urola 0 (Ohorezko mailako gazt.)
Antzuola 1 Bergara 2 (Lehen mailako gazt.)

ESKUBALDIA

Bergara 21 Egialde 22 (Senior mutilak)

PILOTA

Udaberriko Txapelketa
Bergara 4 Tolosa 22 (Kadeteak)
Bergara 9 Añorga 22 (Gazteak)
Bergara 21 Tolosa 22 (Seniorrak)

Mariaren Lagundia Ikastola


Hezkuntza eremu guztiak barne sartzen dituen heziketa integral, kristau eta kalitatezkoa

Zer aurkituko duzu?

HAURTZAINDEGI, HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA
Espoloia 1 Tfnoa.: 943 76 25 40-41. Faxa: 943 76 83 31
e-mail: marilagikastola@euskalnet.net

Argazkiak eta diseinua URKAN



Palestina ezagutu erakusketa iaz antolatu zuten, eta dagoeneko Gipuzkoako hainbat herritan egon da ikusgai.

Martxoaren 3ra arte Palestinako jantzi, argazki, kolore eta usainak egongo dira ikusgai

Palestina ezagutzeko erakusketa Kultura Etxean

MONIKA BELASTEGI

Datorren egunean, otsailak 21 eta martxoaren 3ra arte, Palestinaren gaineko erakusketa irekiko dute Kultura Etxean. Ekialde hurbileko herrialdea ezagutaraztea du helburu erakusketak, eta horrekin batera hitzaldia ere egingo du Thamer Birawi palestinarra.

Palestinaren Lagunak elkarteak antolatu du erakusketa hori, eta *Palestina ezagutu* izenburupean, herrialde horri buruzko hainbat argibide emateko helburua du. Palestinaren lagunak izeneko taldea iaz eratu zen, Tolosan, eta Palestinar herriarekiko elkartasuna adierazteaz gain, Palestinako errealitatea ezagutaraztea du helburu. Hortxe kokatzen da

Bergarara ekarri duten erakusketa, hain zuzen ere.

Erakusketa hainbat zatiz osatuta dago. Batetik, ikusentzunezkoa. Atal hori argazki, bideo, musika, eta liburuek osatuko dute. Argazkietan Palestinaren gaineko hiru ikuspuntu jorratu dituzte: duela hamar urteko Palestina, Palestina bidaiarien begiez ikusita eta balio sinbolikodun argazkiak ere izango dira. Bideo eta dokumentuetan, lehenengo eta gaur egungo Palestina azalduko da. Musikari dagokionez, hainbat estilo eta garaitako musika egongo da erakusketan, eta liburuei dagokionez, Palestina zein bertako sukaldaritzaren gainekoak.

Erakusketaren bigarren atala Palestinako kolore eta usainen gainekoa izango da, eta hainbat jantzi ere izango dira.

EUSKAL HERRIA ETA PALESTINAREN ARTEKO ZUBIA

Thamer Birawi elkarteko sortzaileetako bat dugu. Palestinarra da bera, eta azaldu duenez, erakusketa egunetik egunera osatuagoa dago; ehun elementutik gora osatzen dute, eta Palestinako zatitxo bat dela aurreratu digu.

Arestian aipatu bezala, erakusketaren helburua bergararroi Palestina zer den erakustea du helburu, eta horrekin batera, bi herrialdeen arteko loturak sendotzea, hau da, Euskal Herria eta Palestinaren arteko zubi egitea. Bide horretan, hitzaldia ere egingo du Thamer Birawi palestinarra. Otsailaren 26an izango da, Kultura Etxean 19:30ean, eta "Gatazkaren sustraiak eta gaur egungo egoera" gaia jorratuko du hitzaldian.

Noiz sortu zenuten Palestinaren Lagunak Elkarte eta zein helbururekin?

Iaz sortu genuen Tolosako hainbat lagunak eta nik. Bigarren

intifada akuilu izanik, Palestina eta bizi duen gatazkaren gainean zerbait egin behar genuela pentsatu genuen. Azken batean Palestinaren izena, kultura, egoera... Euskal Herrian zabaltzea. Eta horrez gain, bi herrialdeetako errealitateak lotzeko ahalginean ere ari gara.

Erakusketa hortxe kokatzen da.

Bai. Aipatutako helburuak lortzeko hazia da erakusketa. Gainera, poliki poli-



ki handiagoa da, elementu gehiago gehitzen goaz erakusketari, eta nire ametsa da erakusketa hori Palestinaren museo ibiltaria izatea; Palestinaren zatitxoak Euskal Herrian.

Erakusketarekin batera Palestinako gatazkaren gaineko hitzaldia ere emango duzu.

Beharrezkoa da gure helburuetako batera heldu nahi badugu, hau da, euskaldunen artean dagoen Palestinaren aldeko sentimenduak razionalizatzea. Nire asmoa da hitzaldira hurbiltzen direnei giltza bat ematea Palestinan gertatzen ari dena ulertzera hertzeko.

Bi erraldoi berri estreinatuko ditu konpartsak Pazkoetan

MONIKA BELASTEGI

Kultura batzordeak bi erraldoi berriekin osatuko du Erraldoi, buruhandi eta kilikien konpartsa. Mikel Ibarzabal panpina egileak egingo ditu erraldoiak, eta asmoa da datorren Pazkoetan estreinatzea.

Bi erraldoi gehiagorekin osatuko du Jaiak, Gazteria eta Ekitaldiak batzordeak Erraldoi, buruhandi eta kilikien konpartsa. Erraldoi berriek bikotea osatuko dute, gizonezko eta emakumezkoa izango dira, eta itxuraz, baseritarrak; festa edo jai egunerako apropos jantzita dagoen baserritar bikotea, hain zuzen ere.

Mikel Ibarzabal panpina egile bergararrak egingo ditu bi erraldoiak, eta Udaleko Jaiak, Gazteria eta Ekitaldiak batzordearen asmoa da aurtengo Pazkoetarako prest egotea biak. Erraldoi bikotearen aurrekon-

tua milioi bat eta lauhun mila pezeta ingurukoa da.

BITIK SEIRA BI URTEAN

Bi urtean bi erraldoi izatetik sei erraldoi izatera pasatuko da Erraldoi, buruhandi eta kilikien konpartsa. Iazko Pazkoetan erraldoi bikote berria estreinatu zuten, bikote kaletar dotorea, hain zuzen ere, eta horiek ere Mikel Ibarzabal artisauak egin zituen. Aurtengo bikote berria ere berak egingo du, aurrez aipatu bezala, eta baserritar dotoreak izango diren arren, oraindik ez dute zehaztu egileak eta Kultura batzordeak jantziak zer nolokoa izango diren.

Bikote berri horrekin, beraz, sei erraldoidun konpartsa izango da herrian: bikote baserritarra, kaletar bikote dotorea, eta azkeneko bikote baserritar dotorea. Erraldoi berriak egitearen helburua, azken batean, konpartsa osatu eta aproposagoa edukitzea izan da.



Iaz erraldoi bikote dotorea estreinatu zuten Pazkoetan.

KULTURAPILULAK

Erromeria erraldoi batean parte hartzeko doako ikastaroa Moises Azpiazu taldearekin

Dantzara plazara erromeria erraldoia antolatzen ari da Moises Azpiazu dantzataldea. Erromeria erraldoi hori egun osokoa izango da eta maiatzaren 11n ospatuko dute. Helburua da erromeria jaiak bultzatzea. Egun hori ahalik eta zabalean eta partehartzailena izateko, doako dantza ikastaroak antolatu ditu Moises Azpiazu dantza taldeak.

Dagoeneko hasi dira eskolak, baina oraindik ere izena emateko epea zabalik dago. Saioak astegun eta zapatuetan izango dira, eta talde bakoitzaren ordu eta egunak izena ematen duten pertsonen arabera antolatuko dituzte. Izena Kultura Etxean eman daiteke edo telefono hauetan: 943 761540 eta 943 779158.

E, TXO!

PATATA TORTILLA ONENARI SARIA

Patata tortilla lehiaketa antolatu dute biharko (zapatua), Kuadrillategi-koek. Zabalotegin Udal Euskaltegiak duen egoitzan jarri dute hitzordua, ohiko moduan, 15:30ean.

Lehiaketa hori, baina, ez dago Kuadrillategikoei bakarrik zuzenduta. DBHko hirugarren eta laugarren ikasturteetako gazte guztiei egin nahi die deialdia Jardunek oraingo zapatuko lehiaketarako. Badakizue, bada, anima zaitezte eta sukaldera!

ZINEMA GAZTETXEAN

Joan den eguaztenean, berriro hasi ziren gaztetxean zinema emanaldiak eskaintzen. Duela hilabete batzuk arte ere eskaintzen zituzten filmak, baina arazo tekniko batzuk izan zituztenez, bertan behera laga zituzten emanaldiok. Orain, berriro hasi dira eskaintza horrekin. Datorren asteko eguaztenean, otsailaren 20an, *Casablanca* filma eskainiko dute, gaueko 22:00etan. Horrela, hemendik aurrera eguaztenero eskainiko dute film bat gaztetxean.

KONTZERTUAK GAZTETXEAN

Bi kontzertu izango ditugu oraingo asteburuan Bergarako gaztetxean. Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Nuevo Catecismo Catolico eta Barley Juice taldeen kontzertua izango dugu. Nuevo Catecismo Catolico taldeak *Scarred for life* diskoa aurkeztuko digu. Bihar, zapatua, Apurto, Dominium eta Micky Kaos taldeen kontzertua izango dugu. Kontzertu hori ere gaueko hamar eta erdietan.

GUREGAIK/ GAZTE INFORMAZIO BULEGOA

Gazte Bulegoan 800 kontsulta egin ziren iaz

AINTZANE IRIZAR

Gazte Informazio Gunearen gaineko 2001. urteko balorazioa egin berri dute; horren arabera, gero eta jende gehiagok ezagutzen eta erabiltzen du gazteei zuzendutako zerbitzu hori.


Oso positiboa izan da iazko jardunaldiaren balantzea. Maider Sedano bulegoko arduradunaren arabera, herriko gazte gehienek ezagutzen dute Gazte Informazio Gunea, eta horietako askok, baita erabili ere; baina ezagutu eta erabiltzeaz gain, gazteek eurek "oso lagungarritzat" jotzen dute bulego horrek eskaintzen dien zerbitzua. Gauzak horrela, zer-

bitzua herrian finkatu dela adierazi du Maiderrek.

KONTSULTA GEHIENAK, LANAREN GAINEAN

Iaz, 800 kontsulta baino gehiago jaso zituen bulegoko arduradunak. Kontsulta horietako gehienak, ikasketak bukatu ostean, heziketako edo lan munduko aukeren inguruko informazioa bilatzeko izaten dira.

Berez gazteei zuzendutako zerbitzua izan arren, helduak eta umeak ere joan ohi dira informazio bila bulego horretara. Bestetik, Bergarakoak ez ezik, inguruko herrietako jendearen kontsultak ere jasotzen ditu Maider Sedanok: Antzuola, Elgeta, Arrasate eta Soraluezko jendearenak, besteak beste.



Kultura Etxeko eta Irizar jauregiko paneletan ere jartzen dute informazioa.

LOTSABARIK/ Josu Labaka

"Gezurrek amorrarazi egiten naute"

AINTZANE IRIZAR

Despistatu samarra dela frogatu ahal izan genuen, hitzordua jarri eta ahaztu egin zitzaion-eta. Baina baita alai eta saltseroa dela ere. Berri- tsua ere bada, eta berriketarekin saiatzen ei da seduzitzen.

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Gauzak konpontzea gustatzen zitzaidan. Mekaniko edo horrelako zerbaite izan nahi nuen.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Gustuko dudan lanen baten, eta pisu batekin. Ez da asko eskatzea, ezta?

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Ikasteko eta ikasteko; ondo iruditzen zait, izan ere, euren kontura ari garenez, zerbaite egin beharko dugu.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Hori oso nekeza da. Haien aurrean itxura bat eman, eta gero, kalean, ahalik eta gehien aprobetxatzea da kontua.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Laguntasunari; behar duzunean, inguruan lagunak edukitzea oso garrantzitsua da.

• Zure bertute bat?

Lagunei entzuten dakidala.

• Eta hutsune bat?

Berritsua naizela; hori batzuetan ona izan daiteke, baina baita txarra ere: batzuetan, komeni ez denean ere ahoa zabaltzen dut.

• Zerk amorratzen zaitu?

Gezurrek.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Hortzak. Aparailua eduki dut, eta ondo geratu zaizkidala iruditzen zait.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Ipurdiari eta aurpegiari.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Hizpidea eman, berba egin.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Penelope Cruzekin edo horrelakoren batekin.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Telekomunikazioetako goi mailako modulua • ZALETASUNAK: Eskubaloia • LIBURU BAT: Ez naiz liburuzalea
FILM BAT: 'Spy Game' • MUSIKA TALDEA: Negu Gorriak • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate



ZAHARREN ETXETIK



Eguneko zentroan ari direnek memoria, ádimena edo kontzentrazioa lantzeko ariketak egiten dituzte.



Aratuste giroa erretiratuen egoitzan

Bergarako erretiratuek ez dute ez ondo pasatzeko aukerarik galtzen. Joan den egunean, Iruñera irteera egin zuten, eta, besteak beste, hango planetarioa ikustera joan ziren. Martitzenean, berriz, azken urteotako ohiturari eutsiz, Aratustee-tako bazkaria izan zuten San Joxepeko egoitzan. Guztira, 120 lagun inguru batu ziren, eta, ohikoa denez, umore ona izan zen nagusi. Hainbat eta hainbat lagun ondo baino hobeto mozo-rrotuta azaldu zen, eta, primeran bazkaldu ondoren, Iñaki Quintanillak alaitutako dantzaldia izan zuten.

Hamar lagun ari dira aste barruan San Joxepeko eguneko zentroan

EDU MENDIBIL

Hamar lagun ari dira San Joxepeko eguneko zentroan. Hasieran alzheimer gaixoen senitarteek egindako eskariari erantzunez zabaldu bazen ere, beste hainbat gaitz ere dituzten pertsona edadetuak daude han gaur egun.

Eguneko zentroa 1997ko urrian zabaldu zuten, alzheimer gaixoen familiartekoei eskatuta. Gaur egun, menpekotasun psikiko zein fisikoak dituzten pertsonak jasotzen dituzte. Besteak beste, Diputazioko teknikoei egiten dituzten testen arabera erabakitzen da menpekotasun maila zenbaterainokoa den. Era berean, Zentrora sartzeko baldintzetako bat 60 urtetik gorakoa izatea da. Hilero, gehienez, 282,78 euro ordaintzen dituzte zerbitzuagatik (47.000 pezeta), baina Diputazioak eta Udalak dirulaguntzak ematen dituzte, bakoitzaren pentsioaren eta minusbailotasunaren arabera.

Xabier Legorburu Ongizate Zerbitzuko teknikaria dugu eguneko zentroko koordinatzailea. Alaitz Arana eta Ainhoa Lazkano ari dira han lanean. Biak ere gutxitu psikikoen eta fisikoen hezitzaileak eta klinika laguntzaileak ditugu. Eguneko zentroa astelehenetik egubakoitzera iza-

ten da zabalik, 10:00etatik 18:00etara, hain justu. Zentroan dihardutenek San Joxepeko jangelan bazkaltzen dute, hara joaten diren erretiratuekin batera.

AUTONOMIA MAILARI EUTSI

Alaitzek eta Ainhoa azalduta-koaren arabera, "pazienteak hona heldu bezain pronto hainbat ekintzak egiten hasten gara. Besteak beste, memoria, kalkulua, adimena edo kontzentrazioa lantzeko ariketak egiten ditugu. Ahal duten gauzak euren bakarrik egiten dituzte, autonomia mailari eusteko. Askotan euren markatzen dute zer-nolako gauzak egin nahi dituzten. Arratsaldeetan, berriz, gauza lasaigoak egiten ditugu. Siestaren ondoren, batzuk karta jokoan hasten dira eta beste batzuek, berriz, telebista ikusten dute edo berriketan ibiltzen dira. Ahal dugunean paseatzera irteten gara eta psikomotrizitatea hobetzeko ariketak egiten dituzte". Bestalde, hilean behin Matia Fundazioko terapeuta bat joaten da San Joxepera, gaixoei gertuko jarraipena egiteko.

Senitarteendako laguntza

Batez ere, bere kabuz baliatzerik ez duten pertsonak daude San Joxepeko eguneko zentroan. Xabier Legorburu udal teknikariaren arabera, helburua bikoitza da: "Batetik, senideei laguntza ematea pertsona horiek zaintzeko orduan, lasaitua har dezaten; eta, bestetik, ahal den neurrian euren egoerak txarrerara egin ez dezan saiatzeko gara".

ZAHARREN ETXOKOTIK

Virginia Ruiz de Austri

INFORMATIKA IRAKASLEA

Hogeita zazpi urteko arrasatear honek Enpresaritza ikasketak egin ditu, eta San Joxepen antolatutako informatika ikastaroko irakasleetako bat da.

Zer moduz irakasle lanetan?

Gustura. Lehen ere ibilita nago informatika ikastaroak ematen, eta La Caixakoek Bergarako erretiratuei ikastaroa emateko eskaintza egin zidatenean, ez nuen bi aldiz pentsatu. Ordenagailuak beti gustatu izan zaizkit. Etxean eta lanean dezente erabiltzen dut ordenagailua.

Zenbat ikasle ari dira ikastaroan?

Hamabi bat dabilta Informatika Hastapen Ikastaroan. Martxoaren 26ra arte izango ditugu eskolak, astelehen eta eguaztenetan, goizez, bi orduz.



Zer moduz moldatzen dira erretiratuak ordenagailuarekin?

Ondo. Batzuek lehenetik ere badakite zerbait. Asko ikaslearen eta entretenitzearren etortzen dira, eta daukaten interesa azpimarratuko nuke. Ikasteko duten ilusio hori da garrantzitsua.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

AGOITZ

tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

BONO FOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Kale honek, 1945ean Nobel saria jaso zuen mediku ingelesaren izena darama. Nor zen bera eta zer aurkitu zuen 1928. urtean?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Aligustrea

Ligustrum lucidum

MAITANE ARIZABALETA

Altueran 10 metro har dezakeen hosto iraunkorreko zuhaixka. Adarrak grisaskak eta ilegabeak dira, hostoak aldiz, larrukara edo koriazeoak eta lantza-formakoak. Udan loratzen da eta lore askoko panikula handiak eraten ditu. Fruituak udazkenean heltzen dira, eta zuhaitzean denbora luzez irauten duten baia beltz eta biribilduak ematen ditu.

Jatorriz Txina eta Japoniakoa, apaingarri gisa erabiltzen da, batik bat kale eta pasealekuetako zuhaitz ilarak eratzeko. Bergaran esaterako, Irizar zein Ibargarai pasealekuetan aurki ditzakegu.

Genero bereko beste espezie batzuk ere lorezaintzan erabiltzen dira, *ligustrum ovalifolium*-a esate baterako. Espezie honek, inausketak ondo onartzen dituenek, heskai poligonalak eratzeko oso erabilia da. Hori dela eta, lorezaintzarako hainbat aldaera lortu dituzte, urre koloreko hostodunak. Beste espezie batzuk ordea, *ligustrum vulgare*, heskaiak egiteko erabiliaz gain, euren egurra torneatzeko erabiltzen da, eta euren adarrekin saskiak egiten dira.

“Jatorriz Txina eta Japoniakoa, apaingarri gisa erabiltzen da kale eta pasealekuetan”

GALDE DEBALDE

1. Nor da aurtengo Pazkoetan estreinatuko diren bi erraldoi berrien egilea?
A/ Mikel Ibarzabal.
B/ Felix Beitia.
C/ Dani Laskurain.
2. Noiz ireki zuten Eguneko Zentroa San Joxepe erretiratuen egoitzan?
A/ 1998ko ekainean.
B/ 1996ko martxoan.
C/ 1997ko urrian.
3. Zein taldeetan ari da Martin Arriaran xake jokalaria bergararra?
A/ Urlatz.
B/ Beraun Bera.
C/ San Andres.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

YOLANDA CASTILLEJO rentzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Yolandari! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Aldeta (gainekoa)** / Galde debalde: **1-C, 2-B, 3-A.**



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Urzantesol ekilore olioia

Litro bateko botila

0,90 €

150 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARGAZKILARIA

Agirrebeña

JATETXEA




Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617



BERGARA
Christian Castelo
Otsailaren 19an
urtebete. Urte
askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Aitor Elizburu
Otsailaren 15ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Amaia.



ELGETA
Enrike Romero
Otsailaren 16an 7 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Eider Monkaiola
Otsailaren 21ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Ibon eta Julen.



BERGARA
Ane Agiriano
Otsailaren 15ean 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Marian Etxezarreta
Otsailaren 21ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aritz Rezusta
Otsailaren 28an 11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Beñat.



BERGARA
Alazne Iraztorza
Otsailaren 16an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Leire Manso
Otsailaren 21ean 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Jone Agirrezabal
Otsailaren 19an 8 urte.
Urte askotarako! Garazi,
Aitor, aitaixo eta amatxo.



BERGARA
Xabier Unamuno
Otsailaren 20an 27 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Leire Irizar
Otsailaren 14an 13 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.

BABESLEA

Zorionak zUri...

KARPA ETA KALEFAKZIOA
URTEBETETZE EGUNA OSPATZEKO

MENU AUKERA ZABALA
ZURE AURREKONTURA EGOKITUTA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

Adi! Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, asteleheneretan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxungo

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak
eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederral
Doan!

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den
argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu,
zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino
bi aste lehenago ekartzea komeni da.



CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES AND DIPLOMAS
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE

University of Cambridge / Local Examinations Syndicate

AZTERKETAK ETA DATAK

Starters (azterketa osoa)	Ekainaren 1ean	larunbata
Movers (azterketa osoa)	Ekainaren 1ean	larunbata
Flyers (azterketa osoa)	Ekainaren 1ean	larunbata
K.E.T. (Papers 1, 2)	Ekainaren 8an	larunbata
K.E.T. (Papers 3)	Ekainaren 1ean	larunbata
P.E.T. (Papers 1, 2)	Ekainaren 8an	larunbata
P.E.T. (Papers 3)	Ekainaren 1ean	larunbata
F.C.E. (Papers 1, 2, 3)	Ekainaren 15ean	larunbata
F.C.E. (Papers 4, 5)	Ekainaren 1ean	larunbata
C.A.E. (Papers 1, 2, 3)	Ekainaren 12an	asteazkena
C.A.E. (Papers 4, 5)	Ekainaren 1ean	larunbata
C.P.E. (Papers 1, 2, 3)	Ekainaren 13an	osteguna
C.P.E. (Papers 4, 5)	Ekainaren 1ean	larunbata
B.E.C. 1 (azterketa osoa)	Ekainaren 5ean	asteazkena
B.E.C. 2 (azterketa osoa)	Ekainaren 6an	osteguna
B.E.C. 3 (azterketa osoa)	Ekainaren 4an	asteartea

CAMBRIDGE EXAMINATIONS CENTRE EIBAR ES-438

Azterketak Eibarren
Matrikulak otsailaren 18tik 28ra


INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK:

ARRASATE	Parlance	943 77 06 83
BERGARA	Espolon School of English	943 76 03 53
DURANGO	Compubit English Institute	94 620 20 20
EIBAR	Anglo-American	943 20 64 57
	Link Idiomas	943 20 39 59
	Ukitze	943 20 16 78
ELGOIBAR	Key Ingeles Akademia	943 74 30 44
	Kensington School of English	943 74 02 36
LEKEITIO	Anglo-American Link	630 538 076
ONDARROA	Howdy Academy	94 613 43 26
OÑATI	A & M School of English	943 71 61 37

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
ARETXABAETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 15a / 101. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Gaztetxearen gaineko erakusketa bihar zabalduko dute Olaran etxeko aretoan

AINZANE IRIZAR

Hamasei urte pasatxo dira gaztetxea zabaldu zutela. Han egin diren ekitaldiak, kontzertuak, afariak, eta abar ez dira, ez, hutsean geratu; izan ere, ekitaldi horietako askotan ateratako argazkiekin erakusketa antolatu dute gaztetxean ibilitako lagun batzuek.

Seiehun argazki inguru batu dituzte antolatzaileek. Hamasei urte hauetako gaztetxearen historiaren isla dira, zelanbait, argazkiok. Era guztietako ekitaldiak egin dira gaztetxean urte haue-tan guztietan, eta horietako gehientsuenetako argazkiak ikusteko aukera izango dugu Olarango erakusketan.

Bihar, zapatua, zabalduko dute, eta bi asteburuan izango da ikusgai: otsailaren 16an, 17an, 23an eta 24an, hain zuzen ere. Eguerdietan 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeetan 19:00etatik 20:30era izango da zabalik.

HERRITARREN ARGAZKIAK

Gizarte etxeko lanak direla-eta, gaztetxea itxita dago gaur egun; horregatik, Olaranen egingo dute



Herriko gazte koadrila bat gaztetxean, 1986 inguruko argazki baten.

erakusketa. Gaztetxearen ardura zuten gazteek izan zuten argazki erakusketa egiteko ideia. Baina, gaztetxea itxi behar zutela-eta, bertan behera laga zuten asmo

herri. Gauzak horrela, duela urte batzuk gaztetxean arduradun izandako bi lagun elkartu eta erakusketa euren antolatzea erabaki zuten. Amagoia eta Miren dira

bi lagun horiek. Hainbat herri-tarren laguntza izan duten arren, euren antolatu dute ekimen hori guztia. Pozik azaldu dira lortu-takoarekin: "Azkenean, uste

Argazkiez gain, Gazteen Elkarteak argitaratzen zituen aldizkariak ere izango dira ikusgai

genuena baino argazki gehiago batzea lortu dugu; gaztetxearen hasierako urteetako argazkiak lortzea, esaterako, askoz zailagoa egingo zitzaiola pentsatzen genuen. Oso pozik gaude jendek erakutsi duen jarrerarekin".

ALDIZKARIAK ETA PEGATINAK

Argazkiez gain, hainbat aldizkari eta pegatina ere izango dira ikusgai. Gaztetxea zabaldu aurretik, Antzuolako Gazteen Elkarteak sortu zuten herriko zenbait gazte; gaur egun, Antzuolako Gazte Asanblada izenarekin ezagutzen duguna. Hamar bat aldizkari ere argitaratu zituen AGEK. Gazteekin lotutako gaiak lantzen zituzten. Lehenengo alea 1982ko maiatzean argitaratu zuten; azkenekoa, berriz, 1985ean. Ikusgai izango dira aldizkariok ere.

HERRITARREN HITZA / Jose Mari Ugalde • Erretiratuen elkarteko presidentea

Bi hizpide, euroa eta bakea

Oraingo ekitaldi honetan bi puntu ukitu nahi nituzke: euroa eta bakea.

Azken bolada honetan, komunikabideak, dudarik gabe lagun egin nahian, erretiratu eta pertsona nagusiak asko astindu gaituzte; baina, nire ustez, nagusiok asmatu edo aguantatu egingo dugu. Aurrekoan ezagun batek galdetu zidan ia zer moduz euroekin. Erantzun nion, euroarekin ondo, euroekin, urri antzean. Aguantatu esan dut, eta hori mantentzen dut. Gu gazte denboran errealekin ohituta geunden; erosketak handiak

zirenean, milaka errealez hitz egiten genuen. Gero, berriz, pezetekin, milioiez hitz egiten genuen; eta orain, atzera egin dugu eta ehunka euroz hitz egiten dugu. Beraz, orain arteko aldaketa guztiak irau ditugu eta oraingo honetarako ere lasai hartu behar dugu; horrela, ez dugu gauditu ezindako arazorik izango.

Bakeari buruz hitz egiteko, berriro ere komunikabideetara



"Bakea lortzea zaila bezain sinplea dela esango nuke"

ez dugu bakea erosiko, ez baitago produktu hori saltzen duen merkaturik, ez herrietako merkatu txikirik, ezta mundu

noa. Aspaldi honetan sarritan irakurri edo aditu izan dugu komunikabideetan, bakeak zer prezio ote duen. Badirudi oraingo txanpon honekin familia handi bat sortu dugunez, bakea erosi egin genezakeela pentsatzen hasiak garela dagoeneko. Baina nire iritziz apalean,

mailako supermerkatu handirik ere. Beraz, bakea behar baldin badugu, sortu daukagu egin beharra.

Bake hori nola sortu, zaila bezain sinplea dela esango nuke nik. Horretarako nahi izan behar dugu, ez nahi dugula esan; hitz berdinetan esanahi oso diferentea baitago. Geure buruarekin egitetik hasi behar dugu aurrena: etxean, auzoan, herrian edo gizartearen bakea egitetik hasi behar dugu lehenik eta behin.

Guztiok hori egiten dugun heinean, lortzen joango gara hain maite dugula esaten dugun bakea.

LABUR

Udalak azalpena eman nahi izan du karaoke saioaz

Inauterietako egitarauaren barruan, joan den egubakoitz arratsaldean, diskoteka eta karaoke saioa antolatu zuten Zurrategi plazan. Karaoke horretako antolatzaileek gaztelania hutsez egin zuten saio osoa, ustez euskaraz izan behar zuten saioa. Horrela, Antzuolako Udalak azalpena eman nahi izan du horren guztia-riaren inguruan, eta adierazi du ahaleginak egingo dituela aurrerantzean guztia ondo lotzen, berriro ere horrelakotarik gerta ez dadin.

ELKARRIZKETA

XABIER TAPIA/PSIKOLOGOA

“Denbora asko pasatu behar da seme-alabekin, errespetu afektiboa lortzeko”

A.I.

Astelehenean, hilak 18, hitzaldia egingo du Xabier Tapiak Eskolako aretoan, 18:30ean. Seme-alabekiko autoritateaz eta horien autonomiaz jardungo du, besteak beste. Herri Ikastetxeak eta Pausokak antolatu dute hitzaldia.


Seme-alabekiko gurasoen autoritateaz arituko zara, besteak beste.

Autoritateaz nire lehenbiziko gogoeta zera da: gure belaunaldia agintearen kontra jo eta su aritu ginen, eta belaunaldi bera, orain, aginte eske gabiltzala. Lehenik eta behin, autoritarismoa eta autoritatea bereizten saiatuko nintzateke. Autoritarismoa aginduak betearaztea izango litzateke, nola edo hala, aginduak betearaztea. Autoritatea, berriz, epe luzerako barneratzea da. Arau batzuk badirela onartzea eta horiek betetzea, errespetatzea da autoritatearen helburua.

Eta zelan lortzen da, bada, hori?

Aurrena autoritate afektiboa lortu behar da. Hori urteetako lana da, eguneroko lanaren ondorioa. Horrek denboraren inbertsioa eskatzen du, lehenengo urteetan, batez ere, denbora asko pasatu behar da umeekin, euren errespetu afektiboa lortzeko. Kontua ez da aginduak berehalakotan betearaztea. Kontua da gurasoa egon edo ez egon, semeak edo alabak jakin behar duela norberre kabuz egin behar duena egiten. Beraz, seme-alabak autonomo eta arduratsu izatearekin badu loturarik autoritateak.

Gurasoak aginte ez ezik, eredu bihurtzen dira seme-alabendako. Umeek pertsona nagusiak eredu hartzen dituzte, gurasoak, irakasleak edo entrenatzailea. Orduan, pertsona horrengandik etor daitezkeen aginduak errazago beteko dituzte, agintekeri hutsez datozkienak baino. Horrek



ARTXIBOA

“Autoritatearen helburua da, arau batzuk badirela onartu eta horiek betetzea lortzea”

esan nahi du umeak irabazi egin behar ditugula; eta norberaren autoritate morala eta errespetu afektiboa ere irabazi egin behar dira.

Autoritatearekin nolabait lotuta, zer deritzozu zigorra erabiltzeari?

“Norberaren autoritate morala irabazi egin behar da; umeak irabazi egin behar ditugu”

Ume batek aginduak betetzeko gehiegi erabili behar baldin bada zigorra, hor arazo bat dago. Gauza bat da noizean behin umea zigortu behar izatea, eta beste bat aginduak betearazteko zigorra izatea modu bakarra. Hori gertatzen denean, arazo bat dugu.

INAUTERIAK

Jende mordoa elkartuzen Inauteri festan

Domekan, goizean goiz hasi zituzten Inauterietako ospakizunak herrian. Lantzeko dantzariak, sorginak, tximinoa eta hartza, besteak beste, kalejiran aritu ziren goiz osoan, txistulariek lagunduta. Eguerdi partean, 12:30 aldera, dantza saioa izan zen herriko plazan. Umeen txanda izan zen aurrena; gero, Lantzeko

Inauterietako dantzak ikusteko aukera izan genuen. Eta, azkenik, ohiko moduan, herriko mutilek sorgin-dantza eskaini ziguten.

Bitartean, han ibili ziren hartza eta tximinoa elkar xaxatzen. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta jende mordoa elkartuzen herriko plazan Inauterietako festa hori ikusteko.



AINZANE IRIZAR



Ume, gaztetxo eta nagusi, denek parte hartu zuten Inauterietako jaietan.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1. ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko otsailaren 15a / 87. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Semaforoak eta oinezkoen babesguneak, autoen lastertasuna jaisteko neurriak

OXEL EROSTARBE

Datorren astelehenean 17:30ean izango den Hirigintzako batzordean autoen lastertasunaren inguruan hartu beharreko neurriak eztabaidatuko dira. Diputazio teknika-riendako, oinezkoen babesguneak eta semaforoak dira arazoaren irtenbidea.

Herriko sarrera guztietan, errepideko bi noranzkoen erdian kokatuko liratekeen 1,50 eta 1,80 metro arteko oinezkoendako babesguneak eta arkuan eta Salvador kalean semaforoak jartzea begi onez ikusten du Udalak.

Neurri horiek hartuz gero, nabarmen aldatuko da arkuan eta Salvador kalean autoen lastertasunaren arazoa. Arku barruan, bi aldeetan espaloia egingo litzateke. Horrek ez luke utziko aldi berean bi auto igartzeko aukerarik. Hala, arkuko alde bakoitzean semaforoak kokatuko dira zirkulazioa zuzentzeko. Salvador kalean antzeko zerbait egingo da. Semaforoak ipiniko dira kale hasieran eta amaieran, eta une bakoitzean norabide bakarra egongo da zabalik.



Diputazioak egindako proposamena aurrera eramanez gero, itxura hau hartuko luke arkuak.

ZIUR KOORDINADORAOKAK, GUSTURA
Herria segurua izatea helburu duen Ziur koordinadora nahiko gustura azaldu da autoen lastertasuna murrizteko Diputazioak

eta Udalak proposatutakoekin. Udalarekin zenbait batzar egin ondoren, plazan eta Artekalen semaforoak jartzea proposatu diote, eta koordinadorakoei

ondo iruditu zaie. Ziur plataformakoei ikusten duten arazo handiena kostua da. Proiektua aurrera eramateko oztupo nagusia hori izan daitekeela pentsatzen dute.

Semaforoak eta oinezkoendako babesguneak dira autoen lastertasuna jaisteko neurriak

Uztailerako neurri hauek hartzeko egin beharreko lanak amaituta egotea espero du Udalak

Kostua dela-eta proiektua ez atzeratzea espero dute Ziur plataformako kideek

JENTREBISTAK/ Ze diñozu autuek lastertasuna jeisteko neurrixen gainian?



AITZOL JIMÉNEZ
21 urte

Neurrixak hartzia ondo pentsatzen jata, herritik lastertasun haundixakin pasatzen diran autuen eragiñaz eskapada batzuk ikusi izan ditut eta.




GARBIÑE ETXEBERRIA
49 urte

Autuak lastertasun haundixakin pasatzen dira, eta, bildurrez, beti begiratu bihar dozu bidia pasatzen. Ez dakit zela ez dan ezer pasau honezkerok.



JOSE LUIS MARKIEGI
39 urte

Hartuko diran neurrixak ondo pentsatzen jataz, bide batzuetako horrek plastikuok baino hobeto. Ia autuek lastertasuna jeisteko balio daben.



ANTTONI TELLERIA
80 urte

Komeni zan holako zerbait asmatzia, gure etxe parian-eta autuak tximistak bezela pasatzen dira-eta. Ia horrek neurrixok onerako diran.



JOSE EGIZABAN
57 urte

Ia neurrixek autuak asti-rotxuago ibiltzeko balio daben. Arkuan autuak bizkor pasatzen dira eta sarrittan zerbait gertatzeko zorixan egon da.

LABUR

Sagardotegira irteera antolatu du gaztetxeak

Sagardotegi garaia dela-eta, otsailaren 23rako Hernanira irteera antolatu dute gaztetxeak.

Autobusa eguerdiko hamabietan irtengo da plaza-tik eta buelta goizeko hirurutan izango da. Hernaniko Iparragirre sagardotegian egingo dute bazkaria. Irteeraren kostua 27 € da (4.500 Pta).

Izena Haizea tabernan edo gaztetxe erantzungailuan (943 78 90 43) eman daiteke. Horretarako azken eguna otsailaren 17a izango da.

Aurten ñoiz baiño jende gehixau mozorrotu da ñauterixetako barikuan

OXEL EROSTARBE

Barikuan izan ziran Elgetan ñauterixak. Arratsaldian hasi eta goizaldera arte izan zan jaixa.

Eskolako neska-mutikuak, bazkalostian ekin zotzen ñauterixei. Mozorrua jantzita, frontoian batu ziran, maistrek antolatutako jolasak bertan izan ziran eta. Danerako mozorruak ikusi giñuzen, turistak, indixuak eta bakeruak, marrazki bizidunetako pertsonaiak, paiazuak, emakumiak. Jolasak eta gero, gurasuek gertautako merienda izan zaben Ozkarbi elkartian.



Txorixuendako izan zan ñauterixetako mozorro onenan sarixa.

GABIAN GIRO PAREGABIA

Eguzkixa ezkutatziakin batera, gazte eta nagusixen ordua heldu zan. Gero eta gehixau dira ñauterixetako barikuan mozorrotzen diran herriko kuadrillak, eta hori igarri egin zan, illuntzetik goizaldera arte giro paregabia egon zan eta. Mal de Ojo-kuen rumba doiñuak, hori hala izateko bidia izan ziran.

Aurtengo mozorro onenan sarixa txorixuek eruan zaben. Ben Laden be urreratu zan Elgetara, Torre Bikixei sua emon zotzen hemen be. Aurtengo beste izarrak, butanuak, mirabiak, behiak, bakeruak, txanogorritxu eta amama, ijittanuak ahuntz eta guzti eta elegantiak izan ziran. Ia datorrenian zein dan izarra.



Gaztetxiak antolatutako afarixan hirurogei lagun inguru batu ziran.



Turistak, gure herrixa ezagutzera etorri ziran ñauterixetan.



Eskolako neska-mutikuak izan ziran lehenenguak mozorrotzen. Eurentzako jolasak eta merienda antolatu zittuen.



Txanogorritxu eta amama tabernan izan ziran lanian.

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Goibekokale

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

BOLATOKI taberna-jatetxea



- Asteazken zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu bereziak eta sagardotegiko menua
- Pintxoak, ogitartekoak eta errazioak

Artekale 2, Elgeta. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

Elgetako
Gabonetako
jaialdixa, 1980

Badira hogeitau urte hau erretratuau atara zala. 1980ko Gabonetan frontoian egin zan jaialdi batekua da.

Frontoia leporaino bete zan hau jaialdixau ikusteko. Gaiñera, bertan parte hartu zaben gehixenak herritarrak izan ziran. Bakoitzak, egitten zakiña erakutsi zaban. Batzuk bertotan aritu ziran, beste batzuk armonika edo soinuakin pieza batzuk jo zittuen, herriko gaztiekin antzerki lan bat antzeztu be egin zaben.

Erretratuan agertzen dan kuadrilliakuak kantuan arittu ziran. Jaialdixa zagola eta, kantuan egin zeikiela pentsau zaben, korua osatu eta kantu batzuk ensaiatzen arittu ziran aurreko egunetan. Bai ondo be, kantuan edarto arittu ziran eta. Erretratuan, lora sortia daukala eurekin dagon andrazkua, jaialdixa Bergaratik etorri zan pianistia da.

Goiko illaran ezkerretik eskumara: Julian Markiegi, Jorge Iturrigaztelu, Eva Alberdi, Maria Jesus Loidi, Elisabete Alberdi, jaialdixa etorri zan



pianistia eta Jose Luis Zabalondo.

Beheko illaran ezkerretik eskumara: Beatriz Zabalondo. Mireia Markiegi, Juan Mari Sarasua, Juan Luis Garzia, Ana Mari Gallastegi eta Jose Luis Aranzeta.

Argazkia: Udaleko erretratu artxiboa


ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzul!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Frontoia, inaguraziño egunetik hona

Gaurkuan, frontoia izan dittuan aldaketa garrantzitsuenak ikusteko aukeria izango dogu. Frontoia inagurau zabenian, jartzeko lekuen atzian ez zauan paretik. Horrek aukeria emoten zaban bai Eibarrera bidetik eta baita Artekaleko etxietatik partidak zuzenian ikusteko. Gaur egunian, kristalerak dare bertan eta armailletan batzen da jendia partidak dagozenian.



± 1966

Hemen urteko apirilaren 23an inaguratu zan frontoia. Autoridadien artian Gipuzkuako gobernadore zibila etorri zan.



2002

Hau da gaur egunian herriko frontoian egoeria. Afizionatu mailako lau t'erdiko txapelketa, bertan jokatu da azken urtietan.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma


Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara




Manufacturas LARRAÑAGA

LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

- Seinaleztapena
- Jantziak

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



IPINTZA INSTITUTUA BILERA INFORMATIBOA

Otsailaren 19an 18:30ean

DBHko ikasleei (12-16 urte) eta gurasoei zuzendua.

Bilera amaitu ondoren ikastetxea bisitatzera gonbidatzen zaituztegu.



MATRIKULAZIO EPEA


Otsailaren 18tik martxoaren 1era

BONI LASKURAIN 17-19. TF. 943 76 31 42 / 20 82



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

B e r g a r a k o i k a s t e t x e p u b l i k o a k



SAN MARTIN AGIRRE ATEAK ZABALIK

Otsailaren 16an 16:30etik 19:30era

EGITARAUA:

Erakusketak • Jokoak • Dantzak • Antzerkia
Bideoak • Tailerrak • Maskarak • Informatika
Irratia • Txan magoa

Auzoetako eskolak, Martoko, Zabalotegi eta Osintxu, ezagutzeko aukera ere baduzue.

Informazioa:

943 76 21 47.



MATRIKULAZIO EPEA

Otsailaren 18tik martxoaren 1era

BONI LASKURAIN 25. TF. 943 76 21 47



X-TRAIL BERRIA

- ALL MODE 4X4 TRAKZIO
- SISTEMA ELEKTRONIKOA
- 4 AIRBAG
- ABS.EBD (BALAZTATZEAREN BANAKETA ELEKTRONIKOA)
- NISSAN BRAKE ASSIST.
- EPS+ (EGONKORTASUNAREN KONTROL ELEKTRONIKOA. GASOLINAKOAK BAKARRIK).
- 4 DISKOZKO BALAZTA.
- XXL EGUZKI-SABAI PANORAMIKOA.
- MALETATEGIA HANDIA DA ETA GARBI DAITEKE.
- BI MOTOR MODERNO:
- 2.2L COMMON.RAIL T-DIESEL
- INTERCOOLER 6 MARTXAKOAK.
- 2.0L 16V., GASOLINA (MARTXAK
- ALDATZEKOAK ESKUZ EDO AUTOMATIKOKI)

-TREME LIFE



23.594,00 €-tik
aurrera*

[SEE THE CHANGE]
3 URTEKO
BERMEA
EDO 100.000 KM.

ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate